

Aretxa

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

A A

Alkoholetik ihesi

• Akordeoi
Orkestra

• Afizioak:
Elena Vazquez

• Ikastaro barriak



Arau subsidiarioak

Aretxabaletako Udala, hirigintza Planeamenduan Arau Subsidiarioak berrikusteari ekiteko prest dagoela dirudi. Udal Gobernuak horrela eskaturik, gaur egun sail ezberdinetako hirigintza informazio eta giza hirigintzako azterketa jaso dira, zeinen arabera, berrikusketa prozesua ireki edo ez ireki erabakiko den.

Baina, zer dira Arau Subsidiarioak?, Zertarako balio dute?, Zergatik berrikusi behar dira? galderak, atxabaltar askok buruan dituzten galderak izango dira seguruenik. Ea bada, artikulu honek, hauek eta hauen inguruan sor daitezkeen kezkek argitzen dituen.

Hirigintza Arau Subsidiarioak, Udalerriko, kasu honetan Aretxabaletako lurraldea edo lur-azala, ordenatu nahi eta ordenatzen uzten duen tresna bat dira. Gaur egun gure Udalerrian indarrean daudenak 1984. urtean onartuak izan ziren.

Era berean lur-azala, hiru modu ezberdinetan sailkatzen da:

a) Hiri-Lurra; azpiegitura guztiak erabakita dituen da (hornikuntza, saneamendua, argiteria, bideak, eta abar.).

b) Hiriztagarria den Lurra; aurrekoari erantsia, baina azpiegiturarik gabe.

d) Hiriztatu ezin den Lurra; landa edo nekazal lurraz ezagutzen dena.

Lur-azala sailkatu ondoren, honen erabilera zehazten da, hau, industrial, errezydentziala, edo hornidurazko (eskola, osasun, kirol, aisealdi, zonalde berde, eta abar.) lurra izan daitekeelarik.

Indarrean dauden Arau Subsidiarioak, 25, 20 eta 15 Ha. Industri, Erresidentzial, eta Hornidura erabilerarako sailkatzen dituzte hurrenez hurren.

Berrikusketa eragiten duten arazoak argudiatze garaian, beste batzuen artean eta duten garrantzia kontutan izanik, honako hauek aipa daitezke:

1) Lurraldearen gaur egungo egoeraren ikuspegi orohar eta erreala bat eskaintzen dute.

2) Industri eta erresidentzial erabilerarako izendaturiko lurra, agortzen ari dela ikusi da.

3) Hauek onartu zirenetik dagoeneko 9 urte igaro dira eta legeak, alderantziz jasotzen ez den bitartean (hauxe Aretxabaletako kasua) 8 urtez behin berrikusi behar direla ezartzen du.

Berrikusketa hau, onartu berria den Lurraren Lege Berria oinarrituta egongo da, bertan jasotzen diren berrikuntza aipagarrienetarikoa bat, eraikigarria den probetxamenduen % 15a jabeago publikora pasatzen dela izanik.

Dena den, jasota gera bedi, Arau Subsidiarioen berrikusketak, ez duela zuzen-zuzen ordenakuntza mailen hezkundea suposatzen.

Nire ustez, **garrantzitsuena zera da, Arau Subsidiarioen, egokitze prozesuan herritarrak duen zeresana eta zeregina;** batzuk, jabeek, euren ondasunak zuzenki ikutzen dituelako, denok azken fi-

nean, hauek izango bait dira gure Bizitza Kalitatea zehaztuko dutenak.

Talde Politikoa, protagonista papera eduki behar duten arren ez dira inolaz ere jokalaria bakarrak izan behar, **Elkarte, Kultur Talde, Iritzi Talde, Pertsona bakoitza, gaian, partaide eraginkor izan behar delarik.**

Aitor Irure
HBko zinegotzia

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigrif **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zer daukazu esateko ehizaren gainean?




Anabel Aranzadi
(Ikaslea)

Txarto iruditzen zait. Kontutan euki behar da gero eta animalia gutxiago daudela eta daude-nak hiltzen baditugu gutxiago egongo dira.



Lorea Garai
(Langabetua)

Ni ez nago ados ehizarekin, niretako inportantea da animaliak libre egotea. Gainera ehizan egiteak ez du logikarik, dibertsio bat besterik ez da.



Unai Loidi
(Ikaslea)

Ez zait ondo iruditzen. Ondo ikusiko nuke ehizatze asko egongo balitz, baina gaur egun gutxi geratzen denez ez nago ados.



Deunoro Bengoa
(Pentsionista)

Niri ondo iruditzen zait kontrolatuta egiten bada. Hori bai, jakin behar harko litzateke ze espezetakoak diren eta ze kontrol eduki behar duten. Migrazio animaliak badira eta kontrolatuta ehizatzen badira ez zait txarto iruditzen.

KARTAK

Bazkide kanpainia

Aretxagazetak eskeintzen digun aukera dela eta gure akordeoi orkestraren bazkide egitera animatzen zaituztegu. Urteroko kuota 2.500, ptzkoa da, eta horrekin gure orkestra aurrera irteten lagun dezakezu.

Horrela nahi izanez gero honako telefono zenbaki hauetara zuzendu zaitez:

- Fidel Iturbe 79 68 36.
- M. Asun Zubia: 79 10 66.

Atxabaltako Akordeoi orkestra

Rigoberta Menchú Tum laguntzeko proposamena

Borondate oneko Enbaxadora den Rigoberta Menchú Tum-ek, munduko herri indigenen nazioarteko urtean, bigarren topaketa hau antolatu du. Topaketaren antolakuntzarako dirulaguntza ofizialik jasotzeko aukerarik ez dutenez, Elkarriekin udaran sinatutako kolaborazio akordioa dela eta, guregana zuzendu dira dirulaguntza eske.

Gure egoera ekonomikoa oso aparoa az bada ere, laguntzatxo bat igorri diegu dagoeneko, eta horretaz gainera diirulaguntza gehiago lortzeko konpromezua hartuko genuela adierazi ere. Horretarako, Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eta zenbait gizarte mugimendurekin harremanetan jarriak gara, egoera zein den adieraziz, eta beraien posibilitateen arabera ahal duten diru sartzak egiteko eskaria luzatuz. Bestalde, nahi duenak, nahi duen diru sarrerak egin ahal izateko kontu korrante bat zabaldu dugu.

RIGOBERTA MENCHU-RI DIRULAGUNTZA

<< HERRI INDIGENEN BIGARREN BILERA-TOPAKETA >>

C.L.P.: 198.1.00536.9- BERRIOZAR, NAFARROA

Bake Nobel Sariak, kanpaina honetarako jasotzen den diru sartzeko guztien informazio zehatza izango du. Besterik gabe, Rigoberta Menchú Tum-en izenean jaso ezazue gure agurrik eta eskerrik beroena.

elkarri

Odol emaileak

Urriaren 25ean Arabako odol emaileak Atxalbaltara etorriko dira odol ateraketa egitera. Odola eman gura duten guztiak osasun zentrora joan beharko dute arratsaldeko 4'30tik 8ak arte.

Odola eman ahal izateko 18 urtetik gorakoa eta 65 urtetik beherakoa izan behar da. Odola emateko armozatuta egon behar da, ez da baraurik joan behar. Kontutan izan behar den gauza bakarra azken jatorduktik hasita 2 ordu t'erdi pasatu aurretik odola ez ematea da. Gainera

350cm kubikotik 450cm kubikora arteko ateratzeak, odol kopuruan ez du eraginik; odol kopuru hori berehala berreskuratzen da eta.

Odola ematea ez da mingarria, ez du ondorio kaltegarriarik sortzen, ez eta inolako eragozpenik. Hamar minutu atsedenean egon eta janalditxo bat eginda gero, bizitzak normal jarraitzen du. Gizonezkoendako hiru hilabete eta emakumezkoendako lau hilabete pasatuta gero, gorputza gertu dago berritua odola emateko.

Nafarroa oinez

Urriaren 24ean, Altsasun Nafarroa Oinez izango da. Beinkek autobusa antolatuta bertara joateko.

Apuntatu gura duenak urriaren 21 baino lehenago izena eman be-

harko du Arlutzen edo Beinkeko lokalean.

Beraz badakizue, Nafarroa Oinezera joan gura baduzue eta ez badakizue zela joan hemen daukazue Beinke Elkar-tearen laguntza.



Ekintza bereziak liburutegian

Liburutegiko ardura-dunek, ekintza berezi batzuen bitartez, herriko liburutegia ezagutzera eman gura dute herriko haur eta gazteen artean. Horretaz gain, irakurketarako zaletasuna bultzatu eta liburutegiaren erabilpena azaldu gura diete haur eta gazteei.

Hori dela eta, honako ekintza hauek egingo dituzte, urria eta abenduaren artea: Ipuinaren orduak, poesia errezitala, idazle itzultzaile batekin elkarrizketa eta eskolako haurren bisitak liburutegiaren erabilpena erakusteko.

Urriaren haurrak eta gazteak hasi dira aktibitate hauek egiten, liburutegira bisitak eginez. Ondoren abenduan izango dira beste ekintza guztiak, ipuin kontalariak, poesia errezitalak, idazle eta itzultzaileekin elkarrizketak egongo dira, eskolaurretik hasi eta 8. milara arteko umeendako.

Ekintza guztiak ume eta gazteei zuzenduta daude, liburutegiko arduradunen esanetan, edade horietan sortzen delako irakurtzeko zaletasuna eta liburutegia erabiltzeko ohitura.

IOSU
URDAITEGIA
Mitarte, 1

Marti
Relojeria - Bitxitegia
Bere bezeroen zerbitzura
Mitarte, 16
☎ 79 01 72

ZIRT - ZART
ESTILISTAK
ORDUTEGI INTENTSIBOA:
10etatik 6,30etara
Gorbea Kalea, 2 - Tfnoa: 77 09 44



Arniches teatroaren bisita

Urriaren 1etik 8ra arte Madrilgo Arniches teatroa izan genuen Atxabaltan. Charo Dianezen eta Luis Marcet-en konpainiak, ikuski-zun paragabea eskaini zituzten astebetez.

Atxabaltan aurkeztu zituzten antzezlanak oso sonatuak dira, esaterako, Paco Martinez Sorriaren "Vaya par de gemelos" ikusteko aukera izan genuen.

Horrez gain, etorritako artistek beste antzezlan hauek antzeztu zituzten:

Dueña y señora (Adolfo Torradosena)

Se infiel y no mires con quien (Ray Cooney)

La mal querida (Jacinto Benavente)

Un cura de aldea (Paco M Soria)

Dos paletos en Madrid (Pedro Muñoz de Oca)

Bajarse al moro

La ciudad no es para mí (Paco M soria)

Los cuernos son cosa de hombres

Los derechos de la mujer (Alfonso Paso)

Un cero a la izquierda (Eloy Herrera)

Las mariposas son libres (Leonard Gershe).

Jendea oso gustora geratu zen bertan ikusitakoaz, baina hau ez da gure artean dauden lehenengo aldia, duela urte bi ere gure artean izan genituen

Hitzaldiak

Beinkeren barruan dagoen emakumeen taldeak, Tril taldeak hain zuzen ere, hainbat ikastaro antolatuta ditu urria eta azaroko hila-beteetan zehar. Ikastaroan honako gaiak jorratuko dira:

1) Emakumea eta autostima (urriak 9)

2) Emakumea eta sexualitatea (urriak 26)

3) Emakumea era sexualitatea (azarokak 2)

4) Emakumea: harremanak eta komunikazioa; espazio publiko eta pribatua (azarokak 9)

5) Emakumea: Gizarte trebetasunak (azarokak 16)

6) Ba al dago emakume berriaren definizioirik (azarokak 23).

Emalea Amaia Vazquez (psikologa- sexologoa) izango da. Ikastaroaren ordutegiari dagokionez bi aukera izango dira, bata arratsaldeko 3'30etan eta bestea 6etan.


Matrikula kostua ostera 1000ptzkoa da eta ize-na emateko Beinkera jo behar duzue, 770970 telefonora. Gogoratu gura dizuegu ikasle kopurua mugatua dela.

• Yoga ikasteko klaseak: urritik uztailera arte astero klase bi emango dira. Talde bi daude; bata, astelehen eta eguaztentean 3retatik 4,45ak arte, bestea martizen eta eguenetan 7etatik 8,30ak arte. Klaseetan arnasketa arazoak, ariketa fisikoak, lasaitze ariketak... landuko dira. Informazio gehiago: 79 88 53.

• Kirol-Etxeko erabilitzaileen batek 1994. urterako baja eman gura badu edo aldatetaren bat izan badu bere datu pertsonaletan, Kirol-Etxean azal daiteke urriaren 14etik abenduaren 20ra arte.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI
Aholkularitza

Basabe industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoa: 79 88 75

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Biteri etorb. 15
Arrasate
Tfnoa: 77 12 39

Keramika ikastaroa

Urriaren 25ean hasiko da keramika ikastaroa, Keramika taldeak Kultur Etxean daukan lokalean.

Ikastaroak 30 ordu iraungo du eta eguna eta ordu, apuntetan den

jendearen arabera erabakiko da. Prezioa 2.000 pezetakoa da eta 1.000 pztza gazte txartelarekin. Izena eman gura duenak Kultur Etxera jo edo 79 01 05 telefonora deitu.



HIES Ekimenak egin zuen kartel lehiaketaren irabazlea erabaki da. Epaimahaia Kopi, Mallabi eta Eneko Bigotek osatu zuten eta aho batez erabaki zuten Etxarri Aranazko Sagri Mauleoniar saria ematea. Saria Euskal Herriko zeruetan zehar globoan bidaiatzen da.

Txirrindulari zuzendari ikastaroa

Kirol arloan euskara bultzatzeko bailara mailako plan baten barruan, Deba Garaiko Udaletako Euskara eta Kirol Zerbitzuok "Txirrindulari Zu-

zendari Ikastaroa" antolatuko dute. Izen emateko epea azaroaren 29an bukatuko da eta prezioa 10.000 pztakoa izango da.

Gurasoentzako bilerak

Batzar parrokiarak antolatuta, eguztaren guztietan parrokiako aretoan elkartzen dira guraso taldeak gai desberdinen gainean berba egiteko. Atxalbaltako guraso

guztiendako zabalik dago eta eguztaren arratsaldeko 7etan elkartzen dira. Seme-alaben heziketaren arduradun guraso guztiak gonbidatuta daude.

I.G.P. buzoia zabalik

I.G.P. edo N.I.P delakoaren berri azken alean eskaini genizuen. Jendeak proiektuarl buruz zituen proposamen desberdinak jasotzeko herri bakoitzean buzoia bat ipini behar zu-

tela esan genizuen.

Atxalbaltari dagokion buzoia udaletxean topatuko duzue. Beraz, urriaren 1etik 30era arte ideia eta proposamen desberdinak aurkezteko aukera izango dugu.

Almen Europarantz begira

Ikasturte honetan Goi Batxilergoko ikasgai Almenen zenbait berrikuntza ezarri zaie. Batxilergo Internazionala ezagutu eta honek ziztuen berezitasunak aztertzen ondoren egituratu zen hobekuntzaren nondik norakoa. Irailean, ikasle eta gurasoei proposamena aurkeztu zituzten eta batxilergo zientifikoa egitera zihoaz 42 ikasle eta humanistikoko 29 izan dira modalitate berri honetan sartzeko erabakia hartu dutenak.

Planak berrikuntza metodologikoak suposatzen du batetik: autonomia handiagoz lan egin behar dute ikasleek,

ikerketara bultzatzen du eta infoematika asignatura izateko gai guztietako programetan sartutako ezinbesteko baliabide bilakatzen da.

Bestetik, irekitasuna, Europarantz urratsak ematea suposatzen du: hizkuntza atzeritarren beharrei erantzuna; frantsesa orain eta aurrerago alemenieraren ezagupena ingelesaz gain eta artistiko munduaren zabaltzea, gaur egun hain beharrezkoa den Diseinu Grafikoaren bidez.

Guzti honek, gai eta asugnaturen aukeragarritasuna zabalagoa eskaintzen du, aberatsagoa.

Elkarriren rifa

Elkarrik atera zituen rifen zenbaki irabazleak honako hauek izan dira: 9.800 zenbakia daukanarendako bizikleta bat eta 1.297a daukanarendako Burgalesenean afaria.

Bosniarrak guregana etorri zirenetik, jende askok lan egin du eurekin, beste askok ekonomikoki edo laguntza materiala emanaz lagundu dute. Horretariko bat dugu Elena, Elena Vazquez bosniarrak guregana etorri direnetik dabil eurekin lanean. Langabezian zegoen eta bosniarrei laguntzeko Batzordean sartu zen. Guzti horren barri jakiteko berarekin egon gara berbetan.



Elena Vazquez, bosniarren laguntzaile

• Zela hasi zinen bosniarrei laguntzen?

• laz, joan zen abenduan egunkarian irakurri nuen bosniarrak zetoze-la eta laguntzaileak beharko zituztela. Langabezian nengoen eta apuntatzea erabaki nuen. Horrela sartu nintzen Bosniarrei Laguntzeko Batzordean.

• Zenbat denbora

eramaten dizu guzti horrek?

• Egunero 9retatik 2ak arte telefono deiak erantzuten ditut eta eurek behar dutenean laguntzeko prest nago. Arratsaldeetan ere, gehienetan joaten naiz, bisitatxo bat egitera.

• Noiz bukatuko da proiektua?

• 6 hilabete gehiago luzatu da. Baina aur-

tengo abenduan bukatuko da proiektu guztia. Abendutik aurrera eurek bakarrik moldatu beharko dute eta euren bizitzarekin zer egingo duten erabaki.

• Zenbat bosniar daude?

• Guztira 22. 9 urte-tik 12 urtera bitarteko 5 ume, 14 urteko mutil bat, 18 urteko neska bi eta 22 urteko beste bi. Besteak

helduak dira.

• Zela konpontzen dira hizkuntzarekin?

• Umeek erdera oso ondo ikasi dute, ia-ia menperatuta daukate, helduei gehiago kostatzen zaie. Orain eskolatan umeei euskara ematen diete.

• Ondo integratuta daude?

• Jendearekin bai, gazteak izan dira gutxien kostatu zaienak eta gainera euren eskolako lagunekin urteten dute kalera.

Emakumeek gutxia- go urteten dute kalera.

• Zela daude moralaldetik?

• Hasieran hobeto zeuden, 6 hilabete pasatzeraz etorri zirela uste zuten eta hemen egongo ziren denbora hone-tan gerra bukatuko zela. Baina denbora aurrera doa eta egoera aldatzen ez dela ikusita, desanimetan hasita daude.

• Lanposturik aurkitu dute?

• Oraindik ez, nahiz eta ahal duguna egin laguntzeko. Baina denok dakizuenez, egoera ez da oso ona eta ezin dugu gehiago eskatu.




LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Zer da alkoholiko izatea? Zergatik gaisotasun hori?. Horrelako galderak sarri egiten dizkiogu geure buruari. Horren berri izateko "Alcoholicos Anonimos"-eko partaideekin egon gara berbetan, baita alkoholikoen senide batzuekin ere, hauek ere euren taldea dute "Al-Anon" izenekoa.



"Ez daukagu ezer alkoholaren kontra"

• Zer da alkoholikoa izatea?

Alkoholiko edozein pertsona izan daiteke, Alkoholikoa alkoholarekin arazoren bat daukana da, ez asko edo gutxi edaten duena.

Alkoholikook "Alcoholicos Anonimos" elkartean elkartzen gara, emakumeak eta gizonak. Gure arazoei buruz berba egiteko elkartzen gara eta horrek asko laguntzen digu.

• "Alcoholicos Anonimos" noiz sortu zen?

• 1935. urtean sortu zen Estatu Batuetan. Gizon bi kalean elkartu ziren, batek alkohola itxita zeukan, baina bakarrik sentitzen zen. Orduan barriketan hasi eta konturatu ziren elkarri arazoak kontatuz gero ez zutela edaten.

Euskal Herrian orain dela 33 urte sortu zen, Atxabaltan orain dela

urte bi.

Guk ez dugu dirurik eskatzen, ezta eman ere. Guregana etorteko ez da dokumentaziorik behar, ezta erlijio jakinik ere, eta politikarik ere ez. Elkarrizketaren bitartez konturatzen gara zer garen. Ez dugu alkohola uzteko zer egin behar den esaten, bakoitzak bere esperientzia kontatzen du, zer egin duen uzteko. Elkarrizketaren bitartez, bakoitzak bere esperientzia kontatuaz elkarren berri dugu.

• Ze helburu daukaguz?

• Alkohola uztea. Gu ondo ibiltzea eta arazo bera dutenak eta taldean ez daudenak konturatzea problema bat dutela alkoholaz eta gu laguntzeko gaudela.

• Zerk bultzatzen gaitu alkohola edatera?

• Arazoi asko daude: ohitura, lotsatia izatea eta alkohola edanez zabaldu gura izatea, beldurtia iza-

"Alkoholismoa gaisotasun bat da, eta gaisotasun bat isiltzea egin daitekeen astakeria haundiena da"

tea... Hainbeste arrazoi daude! Emakumearen kasuan adibidez, ezkondu ostean etxean aspertuta daudenean hasten dira. Motibo asko daude alkoholarekin hasteko. Gainera guk atxakia eta gezur asko ipintzen ditugu.

• Zelan jakin noiz garen alkoholikoak?

• Alkoholikoa zaren jakitea gatxa izaten da. Nik banekien alkoholarekin problemak nituela, baina barruan gordetzen nuen, ez nion inori esaten. Baina pertsona batek noiz dakien alkoholikoa den ala ez den? Pertsona bat noiz pasatzen da era normaletik anormalera? Hori ez da jakiten, guretako alkoholarekin arazoak dituenak alkoholikoa, edaten hasten denean, atxakiak ipintzen asten denean edo goizean edan beharra duenean, arazoa hor hasten da. Baina norberak badaki noiz den alkoholikoa, hortik

onartzera... Gainera niretako ere hasieran alkoholikoa nintzela esatea insulto bat zen.

• Nora jo daiteke laguntza bila?

• Lehenengo gure bulegoetara. Guk Gipuzkoa mailan ofizina batzuk ditugu, telefonoa honako hau da: 619338. Ondoren bulegoetakoak gurekin jarzen dira kontaktuan. Bestela, edozein udal-txetara jo daiteke, ongi izate sailera.

Baina jendeak badauki non gauden. Nik gaisotasun bat badaukat gaisotasun bera daukan beste batekin jarriko naiz kontaktuan. Orduan, askotan etxekoek, ez dute gaisotasun hori ikusi gura, baina kalean denek dakite, nahiz eta kalean edan, hori aurpegian ikusten da. Nik etxeko horiei esango nieke gaiso hori gehiago ondoratu gura badute onena isiltzea dela. Alkoholismoa gaisotasun bat da, beraz gaisotasun bat isiltzea egin daitekeen astakeria haundiena da.

• Datu konkretu-rik baduzu, jakiteko zenbat alkoholiko dauden?

• Guk ez dugu estadistikarik egiten, baina Leintz Bailaran 60 alkoholikotik gora daude eta Euskadin, barriz, 600en bat alkoholiko daude.

• Jende asko errekuperatzen da alkoholismotik?

• Lauetik hiruk urtea lortzen dute, nahiz eta baten batek hospa egin.

• Baina osatzeko ahalegin handiak egin behar dira?

• Hasieran zerbaitegin behar da. Mozkor handienak egun bategatik utzi egiten du, guk honekin ez dugu esaten bizitza guztian ez dugula edan behar, guk gaur edan gabe egon behar dugula esaten dugu.

Batzarretan barriketan konturatzen gara, batzarrera etorri aurretik norberak egindakoa ez duela inork egin eta ondokoa barriketan hasten denean zure moduan edo gauza gehiago egin ditu. Orduan beti esaten da, hik utzi dok eta nik ezin?. Orduan Alkoholikoetara etortzen den pertsona horri esaten diogu, borondate pixka bat ipintzeko, eta gero uzteko geuk pertsona hori eroaten. Guk ez dugu ezer txarrik irakasten.

• Ze dirulaguntza daukazue?

• Bat bera ere ez. Guk, geure buruari, familiari eta gizarteari erakutsi gura diegu, edanari utzi diogunez, erresponsable garela eta gauza garela urteteko. Horregatik ez dugu dirurik behar, lokala besterik ez dugu eskatzen.

• Behin alkohola utzi ezkerro, zein izaten da arazorik haundiena?

• Arazorik handiena

etxea izaten da. Guk edaten genuenean, etxean eta kalean ez genuen arazorik ikusten, guretako dena txarto eginda zegoen, geuk bakarrik egiten genuen gauzak ondo. Orduan edateari uzten diozunean, etxean bizimoduak berdin-berdin jarraitzen du, konturatzen gara semeak badauzkagula, haiek eskolan dabilzala eta orduan arduratzen hasten gara. Baina etxean beste batzuek agintzen dute, bera gaisorik egon da beti, beraz guk alkoholikook esaten diogu denbora behar dela gauzak konpontzeko eta lasai hartzeko.

Bestela, kalean gauzak berdin jarraitzen dute, kalean kuadrilan jarraitzen dugu normal


baina kuadrilakoek txikitoak edaten dutenez, kuadrilatik urteten dugu. Geuk urteten dugu, beste batzuk jarraitzen dute, baina urteten dugunok alkoholikoen arteko kuadrila egiten dugu, kontutan euki behar da asteko egun guztietan bilerak ditugula herri desberdinetan, astelehenetan Atxalbaltan ...

• Gaur egungo gizarteak baztertu egiten du alkoholikoa?

• Ez, normalean gehienek lagundu egiten digute.

• Gaur egun alkoholismoa gehiago edo gutxiago dago?

• Ez dakit zer erantzun, baina denbora laburrean, lehenago, alkoholizatzen dira, edariak gogorrakoak direlako edo.



Baina, "Alcoholicos anónimos" etatik talde bat sortu zen, zer ikusirik ez duena aurrekoarekin, Al-Anon. Al-Anon honetan alkoholikoen senideak, lagunak... elkartzen dira. Ez dute alkoholikoen bakkarik sufritzen gaisotasun hori, euren inguruan dauden pertsonen ere

sufritzen dute, hori dela eta sortu zen taldea. Euren esanetan, alkoholikoak bezain gaisorik daude, alkoholak familian edo inguruan sortzen duen kalteagatik. Taldearen asmoa, eurekin bizitzen jakitea da.

Horretarako Al-Anon taldekoak ere, alkoholikoen moduan, astelehenero elkartzen dira, elkarrizketak egiten dituzte eta eurak ere osatzen joan daitezke, eurak ere gaisoak direlako, ez bakarrik alkoholikoak.

Aretxabaletan orain dela urte bitik hona Akordeoi Orkestra daukagu. Orkestraren lehenengo ekitaldia urriaren 16an izango da Atxabaltako parrokiari. Horren berri jakin guran eta taldea ezagutzeko zuzendariarekin eta guraso batzuekin egon ginen berbetan.



Aretxabaletako Akordeoi Orkestra

Atxabaltako Akordeoi Orkestra 11 eta 15 urtera bitarteko umeekin osatutako 20 partaide ditu. Zuzendaria Juan Jose Orobengoa da. Hasiara batean, orkestra hau gazteen hezkuntza musikalaren osagarri izateko sortu zen eta eguneroko lanerako motibazio izan zedin.

Hasiera

Hasieran, mojetan zebilen ume talde bat elkartu zen eta bertako moja batek esan zien ea zergatik ez zuten talde bat elkartzen Olentzerotan eta horrelako ekintzetan joteko. Orobengoa solfeo irakaslea denez, ez zuen inongo arazorik izan eta horrela

sortu zen ideia.

Joan zen urtean hasi zen Juan Jose Orobengoa partiturak zabaltzen bere klaseetan. Orkestrako partaide guztiak solfeo 4. eta 5. urtekoak dira eta denak eda beretsukoak dira.

Gauzak horrela, taldean gero eta ume gehiago zeuden eta kalitatea gero eta hobea zela ikusita Akordeoi Orkestra osatzaren ideia aurrera eroatea erabaki zuten.

Oraindik erreperorioak ez dira oso zabalak baina estilo eta garai guztiak ukitu gura dituzte: Barrokoa, Klasikoa, Akordeoiarentzako berezko musika, Euskal Musika, musika leuna...

Kontzertua

Orain urriaren 16an euren lehenengo kontzertua emango dute Aretxabaletako Parrokiari, gabeko 10etan. Kontzertu honekin egonkortasuna lortu gura dute, eta baita Euskal Herriko leku desberdinetan kontzertuak emateko maila lortzea ere.

Orkestrako partaideak honako hauek dira; Iñaki Cortes, Esti Cruceña, Eneritz Elorza, Ioana Miranda, Agurtzane Azkargorta, Maider Zamaralloa, Ainhoa Izurrategi, Amaia Sampedro, Zuhaitz Errasti, Itsaso Bidegain, Aitor Apraiz, Naiara Akizu, Maitane Apraiz, Oihana Orruño,

Laura Perez, Garikoitz Iturbe, Igor Agirre, Xabier Eraña, Igor Biritxinaga, Iker Arboniez. Perkusio lanak Jose Ramon Elkorok egingo ditu.

Hona hemen Akordeoi Orkestrak emango duen kontzertuaren egitaraua:

I. Zatia; Umeentzako Sinfonia (Joseph Haydn), Negro - Spirituals (renato Bui), Adagio (Tomas Albinoni), Ezpata-Dantza (Jesus Guridi), Boogie-Woodie Rock (Renato Bui).

II. Zatia; Strausens valsik onenak (J. Strauss), Ave Maria (F. Schubert), Manhattan-Boogie (G. Mohr), Euskal melodiak Nº2 (José Franco) eta Radetzky Marsch (J. Strauss)

Boloak eta bolalekuak entzutean kontu zaharrak datozkigu gogora. Gure aitona domeka arratsaldeak pasatzera joaten ziren lekuak. Aspaldiko ohituratzat hartu dugu bolotan jokatzea, baina gaur egun gizarte honetan lekua izan dezakeela ere ikusi dugu.



Umeak ere bolotan

Gaur egun ere bolajoak bere lekua izan dezakeela erakutsi digutenak San Migel jaietan bolo txapelketan parte hartu duten neska-mutilak izan dira.

Duela 7 urte Kepa Urra eta Iñaki Berasaluzek, hain gurea den kirol hau berreskuratzeko eta gazteengan afizioa sortu guran zapa-tuero zenbait neska-mutilekin elkartu eta bolotan jokatzeko jakin beharrekoak erakusten ahalegindu ziren. "Guk afizioa sortzeko asmoaz eman genituen lehen urratsak eta erantzuna oso ona izan zen, neskek zein mutilak zapaturero etorten ziren eta benetan ederto pasetan zuten".

Gazte horiek animetako txapelketak egiten hasi ziren, bai Atxabaltan eta baita kanpoan ere "Gipuzkoako txapelketan egon ginen lau mutikorekin eta lehenengo urtea zela ikusita positiboki baloratu genuen esperientzia hura.

Gainera mutiko batzuk bolo jaurtitzailerak izateko bidean ikusi genituen".

Baina gizarte honek ematen dituen ezustekak dira eta, iniziatiba hura aurrera eroran ahal izateko Iñaki Berasaluze bakarrik geratu zen eta uztea erabaki zuen. Harrez gero, Iñakik jaietan besterik ez zituen bolo txapelketak antolatzen. Antolatutako bolo txapelketa horreikotako bat San Migel jaietako bat izan zen. Bertan 35 partaide izan genituen, 9 urtetik 14 urterako bitartekoak. "Aurten neskek ez dute parte hartu baina aurrekoetan mutikoekin batera neska ere ibiltzen ziren"

Bolotan ibili ziren neska mutilek ez zuten ezer behar izan txapelketan parte hartzeko, "jokatzeko gogoia nahikoa zen, txapelketa gazte guztiendako zegoen zabaldua eta".

Esanak esan, 35 partaideetatik trebeena Arkai-

tz Berasaluze izan genuen, bigarren, hirugarren eta laugarren tokietan ostera Xabi Lasagabaster, Mikel Sebastian eta Ander Uralde geratu ziren.


Orain bolalekua geldidago eta Iñaki Berasaluzek jarraitzeko asmorik ez duela aitortu zigun, "ez dut astirik beste zenbait gauzatan sartuta nago eta ez dut astirik, dena dela polita izango litzateke norbaitek guk jorratu dugun bidea jarraitu eta barriro bolalekuari merezi duen bizitza emango bazen".

Hor dago bada ideia, orain norbaitek Iñakirekin berbak bere gain hartu eta praktikan jartea falta da. "Ziur gaude neska-mutilek asko eskertuko dutela zeren guk utzi genuenean gazte asko etorri zitzaigun barriro noiz hasi behar zuen galdetzera. Beraz, jarraitzeko gogoaz daudela esateko moduan gaude". Ea ez den gogo hutsean geratzen.

Urriaren 17an, Eskoriatzan, mountain-bike ibilaldia izango da. Ibilaldiak goizeko 9etan urtengo du herriko plazatik; izen-ematea 500 pztza izango da eta urteera baino ordu erdi lehenago plazan ordaindu beharko da. Parkehartzailerak honako zerbitzu hauek izango dituzte: hamaurretakoa, seguru pertsonala, dutxak, bizikleta garbitzeko mangerak eta guztiendako kamiseta bana.

Datorren urriaren 24ean, Eskoriatza eta Arrasate bitarteko I. Kross Herrikoia izango da. Urteera Eskoriatzako plazan izango da eta Arrasateko udaletxean bukatuko da. Kross horretan Lenitz bailarako 16 urtetik gorako edozeinek parte hartu dezake.

Denboraren abiadura ezberdinek (beti denbora!) errealitatearen ikuspegiak aldatzen dituzte, bakoitzaren denbora eta errealitatearen izana esanguratu. Egunetik egunera, eta urtetik urtera gauzen aldaketa nabaria da, eta horren adierazgarri nabarienetako bat herriaren konposaketa fisikoa litzateke. Gure haur/mutiko denborako Atxabal-tak eta gaurkoak ezer gutxi dute elkarrekin. Herria zeharo haunditu da, luzatu da, zabaldu da, hazi da eta arrarotu da.



Denboraren gurrupilak gero eta abiadura handiago hartzen du eta etorkizunearan jaioko direnek (Armentia Makeda batek adibidez) ez dute guk ikusten dugun Atxabaltan ikusiko, eta zer esanik ez XIX. mendeko herria. Gure mutiko denborako herria eta ordukoak (XIX. mendekoak) bazuten zer ikusirik, gutti bada ere.

Gaurko argazkia, AR-

KEOLAN taldeak asmatutako marrazki hipotetiko hurbil bat da. Bertan, eta artxibategiko lanen ondorioz garai hartako herria ikus dezakegu. Gaurko Otolara kalea, guretako Kalebarrena zen, eta 1900. urterarte Calle San Migel esaten zioten. Durana kalea, Kalia, lehen Calle Mayor zen, eta Mitarte Kaleari, herritarrok Kalegoixena esaten genionari garai hartan Calle San

Martin esaten zioten.

Marrazkiko bizpauru puntu aipatzekotan, bija zaitetze plazaren kokapenean, frontoi, iturri eta bolalekuarekin. Bestalde, argazkiaren behealde ezkerrealdean "Industrialde" txiki bat: bi fabrikak bere tximini eta guztiz; batetik "fabrika zaharra" Arrasateko UCEM-eko oinarri izango zena; eta bestetik

Pospolo fabrika. Biak, Larribetik zetorren eta datorren Errekatxoaren inguruan. Errekatxoari lehen Urgutxia esaten zitzaion. Gaur egun Durana 35eko etxe azpitik pasatuz, kalea zeharkatzen du eta Durana kaleko 42. etxe azpitik igaro ondoren errekarara ixurtzen ditu bere ur eskaxak.

ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den iturria?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: plazako Iturria)

Aurreko lehiaketaren irabazlea ARRATE ARKAUZ.

Zorionak.



Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tfnoa:

Jaioko dira barriak



J.J. Aretxaga

Behin edade bat ezker kostatu egiten da, orrialde hau ez da hain samur beteten, idazterakoan gaztetxoagoen bizitasuna eta erreflejoak faltan botatzen ditugu. Horrelakoetan erreleboaren esperantzan geratzen gara, jakinean etorriko direla, nahikoa egin dugulakoan edo. Gainera gazteak fuerte ei datoz atzetik bultzaka, euren lekua exijituaz. Atzetik bultzaka datorren horreitako bat **Olaia Arrese Iturbe** 18 urteko eskoriatzarra da. Eusko Jaurkaritzak antolatutako Urruzunoz saria irabazi berri du poesia sailean. Berak dioenez: " Ez dut poesia irakurtzen, ni soilik egiten hasi nintzen gustatzen zaidalako". Hasiera besterik ez da, aurrerantzean ere izango dugu bere berri, ziur nago.

Gauza bera pasetan zaie ikastaroetako monitoreei. **Josu Lazkanok** argazkigintzari buruzko ikastaroa emango du. Aretxagazetako kolaboratzaile fina izan zen bere laguntza behar zenean. Ikastaro horretan kamara eta laboratoriko sekretuak esplikatzeko saiatuko da, baina ez ditu denak kontatuko, badaezpada.

Eskulanen mundu zabala irakasten

saiatuko direnak **Mila Akizu** eta **Piedad Roman** izango dira. Horiek ere herriko kultur etxeko lokaletan emango dute eskulanei buruzko ikastaroa. Eta gauza bera esan dezakegu **M^o Jose Fuensantaren** gainean. Keramikari buruzko ikastaroa emango du. Kultur etxean, jakina.

Aurrekoak nahiko gai klasikoak ziren. Aerobic-a, barrez, asmakizun barria da, baina indarra hartzen hasi dena. Amerikarren gauzak gero eta samurrago irensten ditugu, laster dinosaurioen txuletak salduko dizkigute herriko harategietan. Aerobicaz jarraituaz, **Pili Muñagorri** eta **M^o Jesus Andueza** pozik egon daitezke. Iaz hasi ziren aerobica irakasten kuarteleko gela batean. Aurten gela hori txiki geratu zaie eta gela bitan ematen dituzte euren klaseak. Martxa honetan...

Martxa honetan... **Kilometroak** tabernaz taberna egiten direla esan daiteke, Ordiziako kilometroak bai behintzat. Joan zen domekan Aretxabaletatik autobusez joan ziren 243 gazteetatik zenbatak ote zekiten Kilometroak Gipuzkoako ikastolen jaia dela eta hori denori. Hilaren 24ean **Nafarroa Oinez** egingo da da Altsasuan eta beste horrenbeste pasatuko da. Ez dakit lerregitxo ez ote den.

16

ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Aretxabaletako Parrokian, "**Aretxabaletako akordeoi orkestraren**" kontzertua.

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman "UNA PROPOSICION INDECENTE" **fimea**.

17

DOMEKA

- Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera:

Hiatzulora.

- Futbol partidua: U.D.A. - Danak C.D.

- Zaraia zineman, arratsaldeko 4,30etan "SUPER MARIO BROSS" eta 7,30etan "UNA PROPOSICION INDECENTE" **filmeak**.

19

MARTIZENA

- Udaletxeko Ganbaran "**Emakumea eta autoestima**" buruzko hitzaldia Tril emakume taldeak antolatuta.

23

ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman, "CHAPLIN" **filmea**.

24

DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Nafarroa oinez, Altsasura**.

- Nafarroa oinez, **Altsasun**.

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Mirañamendira**.

- Arratsaldeko 4,30etan eta 7etan, Zaraia zineman "CARIÑO HE AGRANDADO AL NIÑO" **filmeak**.

26

MARTIZENA

- Udaletxeko Ganbaran "**Emakumeak eta sexualitateari**" buruzko hitzaldia Tril emakume taldeak antolatuta.

ARETXAZOKA

Lana

- Ingeneritzako ikasle bat, klaseak emateko prest: Matematika, teknologia, fisika eta kimika. O.H.O, REM eta U.B.lko mailetan. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 50 39.

- Irakasle titulua klase partikularrak ematen ditu O.H.O.ko 1go mailatik 8. mailararte. Tfnoa: 77 10 72

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Mitarte 15 kalean. Dei ezazue 79 74 95 telefonora, arratsaldeko 8,30etatik aurrera.

- Garaje bat salgai. Dei ezazue 79 29 19 telefonora.

- Pisu bat saltzen da. Interesatuak deitu 79 02 73 telefonora.

Etxebizitza

- Pisu bat alokatu gura dut. Interesatuak deitu 79 79 00, Leintz Lambide Eskolako telefonora, 8retatik 2,20ak arte eta Xabier Gonzalez-egatik galdetu.

- Pisu bat alokatuko nuke. Jantzigabe obe. Interesatuak deitu 71 47 10 telefonora eta losu-gatik galdetu.

Orrialde honetako iragarkiak (Iana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

Audi VW

**GARAJE
OSKAR**

Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARIAI TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 77 07 94
79 91 84

ITURGINTZA

JJ

Tfnoak: 79 07 34
79 31 87

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA




Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA

TXIMAK

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Herriko plaza, 5
☎ 79 83 64

Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jatetxea!



BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!

Tfnoa: 71 46 08
GATZAGAN

RKLI

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55

**ARETXAGAZETAko
BAZKIDE** izan gura
baduzu deitu:
☎ 79 01 05

Arratsaldeko
3retatik 7retara

**Mobiliario
ARENAZA**

ALTZAIURAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69
ARETXABALETA

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66



ATXABALTARRON ALDIZKARIA

Aretxagazeta Elkarte, Kultur-Etxea.

ARETXABALETA

Tfnoa: 79 01 05

151 postakutxatila